

EBAZPEN BATZORDEAREN BILERAREN

AKTA

2016ko martxoaren 22a

Bilbon, 2016ko martxoaren 22ko 17:00ak direnean Bizkaiko Batzar Nagusietako egoitzan honako hauek bildu dira: Ebazpen Batzordeko lehenkari Juan Luis Ibarra Robles jn., eta Batzordeko kideak diren Andrés María Urrutia Badiola jn., Javier Balza Aguilera jn., Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena jn., José Ramón Bengoetxea Caballero jn., Kepa Bilbao Gaubeka jn. eta María Carmen Agoues Mendizabal and. Batzordeko idazkaria den Begoña Basarrate Aguirre ere bileran egon da. Honako erabakiak hartu dituzte:

ERABAKIAK

LEHENENGOA.- AZKENEKO BILERATIK BATZORDEAREN EGOITZAN SARRERA IZAN DUTEN IDAZKIEN AZTERKETA.

Idazkari andreak azkeneko bileratik Batzordearen egoitzan sarrera izan duten idazkien berri eman du:

1.- 2016ko martxoaren 9an Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Administrazio eta Erakunde Harremanetarako Saileko Lege-aholkularitza Zerbitzuetako letradu buruak aurkeztutako idazkia, non “Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako herritarrak ahalduntzeko” Lege-proposameneko artikulua jakin batzuei buruzko eskumen-arazoa planteatu baitzuen.

2.- 2016ko martxoaren 9an Gipuzkoako Foru Aldundiko Lege-zerbitzuetako letraduak aurkeztutako idazkia, non “Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako herritarrak ahalduntzeko” Lege-proposameneko artikulua jakin batzuei buruzko eskumen-arazoa planteatu baitzuen.

EBAZPEN BATZORDEA
COMISIÓN ARBITRAL

3.- 2016ko martxoaren 9an Arabako Foru Aldundiko Lege-aholkularitza Zerbitzuko letradu buruak aurkeztutako idazkia, non “Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako herritarrak ahalduntzeko” Lege-proposameneko artikulua jakin batzuei buruzko eskumen-arazoa planteatu baitzuen.

BIGARRENA.- BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK ETA ARABAKO FORU ALDUNDIAK PLANTEATUTAKO ESKUMEN-ARAZOEI BURUZKO ERABAKIA.

Honako hau erabaki da aipatutako erakundeek “Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako herritarrak ahalduntzeko” Lege-proposamenaren aurrean planteatutako eskumen-arazoei dagokienez:

1.- Planteatutako eskumen-arazoak izapidetzea onartzea, zeintzuk hurrenez hurren 1/2016, 2/2016 eta 3/2016 zenbakiekin erregistraturik geratu baitira.

2.- Erakunde legitimatuei helarazpena egitea hogeitun eguneko epean planteatutako eskumen-arazoei buruz bidezko deritzotena alega dezaten.

3.- Eusko Legebiltzarreko Mahaiari erabakitakoaren berri ematea eta proposamenaren egileei horren helarazpena egin dakiela agintzea, hogeitun eguneko epean bidezko deritzeten alegazioak aurkez ditzaten, Ebazpen Batzordearen Legeko 50.2 art.ak xedatutakoarekin bat.

HIRUGARRENA.- TXOSTENGILEAK IZENDATZEA

1.- Bizkaiko Foru Aldundiak planteatutako 1/2016 eskumen-arazoaren txostengile Juan Luis Ibarra Robles jauna izendatzea, berari baitagokio txandaz.

**EBAZPEN BATZORDEA
COMISIÓN ARBITRAL**

2.- Gipuzkoako Foru Aldundiak planteatutako 2/2016 eskumen-arazoaren txostengile José Ramón Bengoetxea Caballero izendatzea, berari baitagokio txandaz.

3.- Arabako Foru Aldundiak planteatutako 3/2016 eskumen-arazoaren txostengile Javier Balza Aguilera izendatzea, berari baitagokio txandaz.

**LAUGARRENA.- ESKUMEN-ARAZOEN METATZE-INTZIDENTEARI
HASIERA EMATEA**

Bizkaiko Foru Aldundiak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Arabako Foru Aldundiak sustatutako eskumen-arazoaren metatze-intzidenteari ofizioz hasiera ematea erabaki da eta, ondorioz, prozeduran agertutakoei entzunaldi-izapidea irekitzea hamar eguneko epean, Ebazpen Batzordea arautzen duen 13/1994 Legeko 31.1 artikuluan ezarritakoarekin bat. Era berean, erabaki da Eusko Legebiltzarreko Mahaiari horren berri ematea proposamenaren egileei ezagutzera eman dakien.

Azpimarratzeko moduko besterik ez dagoenez, bukatutzat ematen da bilera hau, 18:00 direnean, eta bertarutakoei dei egiten zaie hurrengo saiorako, zeina 2016ko apirilaren 5ean 17etan egingo baita Gipuzkoako Batzar Nagusien egoitzan. Akta hau egin da eta Batzordeko lehendakariak eta kideek sinatu dute. Nik, idazkariak, fede ematen dut.